

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urtarrilaren 19a




Nafarroako Liburutegia egoitza bila

Nafarroako Liburutegi Nagusia 1972an eraiki zuten Iruñeko San Frantzisko plazan, eta azken zortzi urteotan egoitza bila ari da. Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean akordiorik ez izateak, ordea, ezerezean utzi ditu orain arteko saio guztiak. Iruñeko Udalak Alde Zaharrean

jarraitzea nahi du. Nafarroako Gobernua, dirudienez, erai-kin berria lortzearen alde dago. Aholku hori eman diote, behintzat, Espainiako Kultura Ministerioak eta Unescok. Eta hori da liburutegiko arduradunek nahi dutena. Bitartean, liburuak pilatuz doaz San Frantzisko plazan.

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Telebistako irudiak ikusgarriak dira hagitz. Dokumentalaren gaia, besteren kontura, hobeki esanda, besteren bizkar odola zurrupatuz bizi diren animalien estrategiak. Gureak, kaka hutsa. Zehaztasunez zein hitz erabili behar den jakiteko, hiztegi-jo behar dut eta, horra hor, zer aurkitu dudana. Bizkarroikeria deitu behar zaiola egintza horri, baldin eta egitearen protagonistak pertsonak badira. Drakularen antzekoek darabilten artea beraz, kolperik jo gabe besterengandik odola xurgatzen elikatzen direnen bizimodua, alegia. Bizkarroitasuna dela bestetik, egite bera definitzeko baliagarri daukagun beste hitz bat baina, kasu honetan, landare eta animaliei soilik atxikitzen ahal zaien. Mihura eta izainak izanen ziren bigarren adieraren jarraitzaile sutsuak. Bizkarroi sail ederra agertzen da pantailan, pantailaz honunkoei arratsaldeon emanenez. «Eta baita zuei ere», nik erantzun. Irudietako bizkarroien lana goraiatzekoa da benetan. Hauek bai direla langile pihok! Horietako batek harritu nau zeharo. Har antzekoa da, eta antzekoa dela diot,

Mokokadak

inongo momentutan osoki nabarmetzen ez delako. Oihan tropikalak ditu bizileku; barraskiloen lepotik bizi da eta, bere bizimoldea nolako den kontutan harturik, *bizkarroia* deitzeko partez *adarroia* deitu beharko genukeela uste dut. Gure barraskiloa badoa landareztatik zehar, bere adartxoaren barranean esandako harra herrestan eramaten, hostoz hosto bere zama hilgarria garraiatzen. Hasiera batean, txikia da harra baina, hezurgabearen mami-jaten doan heinean, adarrak potoltzen dioazkio barraskiloari, itxura ia aldarzteraino. Hunkigarriena ordea, gertatzen dago oraindik. Barraskiloak badu bere sena, eta berak esaten dio hola ibiltzeak ez duela merezi, bere gisakoek ere badutela barraskiloki bizitzeko duintasunik, eta zerbait egin behar dela ahalik eta azkarren. Irudiak dena dio: landaretzaren behko hostoak abandonatuz, gorunzko bideari ekiten dio mantso, harik eta goiko hostoetaraino iritsi eta hosto baten gainean paratu den arte. Bértantxe, geldigeldi, herioaren zain geratzen da, bai baitaki txoria zelatan ibiliko dela, beti be-

zala, mokoka joateko prest. Izanez ere, hortik gertu dabilen txori batek, burua ezker-eskuin taigabe eragiten duenak, barraskilogana jotzen du deblauki, bai oskolduna nola *adarroia*, mokokada zuzen batez biak zurrupatuz. Kamararen begi zorrotza, lekuko. Irudi hauek ikustetik ordu gutxira eta, baita telebista bidez ere, jaso dut notizia Brasilgo gobernuak multinazionaleri erraztasun handiagoak eskaini dizkienekoa, Amazonian petroleo prospekzioak eta papergintza areagotu ditzaten. Irudiak dokumentalekoak bezain gordinak dira: oihanaren suntsiketa eta bertoko bizilagunen etsipena. Aditu egiten dut gasolinaz dabilen autoaren motore hotsa, nirea bezalakoa. Badakusat halaber, hitz hauen euskarrirako makinatzairek bota dituzten zuhaitz piloak eta hauetxetatik ekoiztutako paper txuria. Oihaneko lehian, txoria garaile suertatu omen zen. Baina txoriak ez daki zer-nolako bizkarroia daraman bere papoan —barraskiloa, *adarroia* eta bera ere— batera suntsitu egingen dituen. Gu, biziaren parasi-took! X

KONTZERTUAK

Tutera: Castel Ruiz kultura zentroan, Daniel Morak eta Julia Rochak piano eta biolontxelo kontzertua eskainiko dute. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan izanen da.

Iruñea: Terminal tabernan Fabi taldeak joko du heldu den ostegunean, ilbeltzak 25, gaueko 9.30etan.

Iruñea: Alegria tabernan Nahita Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du, datorren ostegunean, 21.30etan.

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak kontzertua eskainiko du gaur. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan izanen da Gaiarre Antzokian.

ZINEMA

Iruñea: Olite zinemetan beldurrezko zinema zikloaren barruan, datorren asteartean, urtarrilak 23, *Delicatessen* pelikula eskainiko da. Emanaldia arratsaldeko 8etan izanen da eta sarrerak 250 pezeta balio du.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Lacava kafetegian, Jordi Celaiaren marrazkiak ikusteko parada dago otsailaren 4ra bitartean.

Iruñea: Maisonnave hotelean, Ines Zudairenen lanak daude ikusgai otsailaren 8a bitartean.

BERTSO SAIOA

Doneztebe: Fauna txiki bat bertso berritan izeneko bertso emanaldia eskainiko dute Aitor eta Jon Sarasua anaiek. Bertso emanaldia bihar izanen da, arratsaldeko 7.00etan herriko zineman. Sarrera 300 pezetakoa da.

MENDI IBILALDIA

Iruñea: Nafarroako Kirol Elkarrekin mendi irteera antolatu du iganderako. Ibilaldia Ganuza-Galdeanora izanen da. Informazio gehiago nahi duena elkarteak Jarauta kaleko 78an duen egoitzatik pasa daiteke edo 22 43 24/22 98 20 telefonoetara deitu.

HITZALDIAK

Iruñea: Zaldiko Maldiko elkatean *Koloreak euskal usarioan* izanen du mintzagai Patziku Perurena idazleak. Hitzaldia datorren asteazkenean, ilbeltzak 25, arratsaldeko 8.30etan izanen da.

Iruñea: Zapateria 50 aretoan, Xabier Girok, *El Viejo Topo* aldizkari erredaktore buruak, gertean komunikabideek informazioa edo propaganda ematen duten aztertuko du. Hitzaldia datorren asteazkenean, hilak 24, izanen da, arratsaldeko 8.00etan. Ostegunean, berriz, toki eta ordu berean, Carlos Gil Gomez soziologo madrildarrak garapenerako ematen den laguntza, gastu militarrek eta gobernu kanpoko erakundeengatik eginkizuna aztertuko ditu.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Zaraitzu eta Pirena

Zaraitzun beldurrez daude batzuk egunotan, beldurrez gainean datorkienarekin. Heldu den astean, hilaren 28an hain justu, Pirenak lehen etapa egingo du Abodiko mendizerran, eta iragarrita dagoen antolakuntza guztiak -150 lagun lasterketakoak, 50 bat ibilgailu, lau mila ikusle inguru, helikopteroa...- Otsagabian eta inguruko herrietan egingo du desenbarku. Itsasontzi gehiegi kai txiki honetarako.

Pirenaren aurkezpenean Pep Pares lera txakurrekin lasterketaren zuzendariak hamaika hitz polita esan zituen Irati eta Zaraitzuri buruz. Pirinioetan ez zegoela horrelako lekurik, jendeak ezagutu beharra zuela, eta primeran eutsi ziela inguruak Pirinioetako beste alderdiak izorratu dituzten urteei eta garapenari. Pirenak edertasun hori guztia Europan zehar aldarrikatu baino ez zuen egingo, eta egun bateko aztoramenduak onurak besterik ez zizkion ekarriko ibarrari publikitateari esker. Iruñeko antolatzaileen artean ere haserre ez zen txikia ibarretik paratutako traba batzuegatik -In-

gurugiroko baimenak eta azken detaileak ongi lotuta aurkeztu beharra...-, eta zaraitzuarrak egiten ari ziren negozioaz jabetzen ez zirela-eta kexu ziren. «Azken finean, belardi bat besterik ez da Abodi!», esan zuen antolatzailetako batek.

Negozio ederra, baina hortaz bizi direnak ere izututa. Zaraitzun aspaldiko eztabaida izan da turismoarena, eta lehen sukarra aspirinekin gaudituta, nola edo hala gaudituta du ibarrak. Esan daiteke turismo kontrolatua dela bertakoa, handitasunik gabekoa erabat. Baztertua dirudi kopuru altuak lortzeko nahiak, eta batek baino gehiagok aipatu egin du promozioa ere ez dela egin behar, nahikoa dela joaten den jendearekin.

Nola bereganatuko luke alderdiak jende saldo horretarako prest ez dagoenean? Zein onura ekarriko luke neurritz gainera publikitateak ehun pertsonak bapatean iritsita arazoak sortzen baldin badituzte? Behar al du Zaraitzuk Pirena? Baten bat, ostalaritzan dagoena gainera, erreguka ari da dagoeneko heldu den as-
teburuan Abodin elurra izan ez dadin.



asteko pertsonaiak



Arturo Perez Reverte
Idazle eta kazetaria

■ Arturo Perez Reverte idazlea eta kazetaria asteazkenean Iruñean izan zen. Nafarroako hiriburuko Planetariora bere azken liburuz, 'La piel del tambor', hitz egitera etorri zen. Perez Revertetek atzean utzi duen kazetari lana eta orain duen idazle zeregina izan zituen mintzagai. Kazetaria Cartagenan jaio zen 1951. urtean eta 20 urte gerraz gerra lanean egon da. Planetarioan erran zuenez, bere bizitzaren etapa hori bukatu da eta orain beste berri bat hasi du, idazlearena hain zuzen ere. Revertetek dagoeneko 7 elaberrri argitaratu ditu eta guztiak arrakasta handia izan dute. Bere lanak Espainian ezezik beste herrietan ere saltzen dira, 15 hizkuntza baino gehiagotara itzuli baitira.



Jesus Garcia Villoslada
Nafarroako gobernu
ordezkari ohia

■ Jesus Garcia Villosladari, 1986tik 1992ra Nafarroan gobernu ordezkari izan zenari, diru publikoa desbideratu izana leporatu diote. Garcia Villoslada, asteazkenean epaiketa izan ondoren behin-behineko askatasunean geratu zen hamar milioi pezetako fidantza ordaindu ondoren (400.000 libera). Gobernu ordezkari ohia Nafarroako Aurrezki Kutxaren abal bati esker libratu zen kartzelatik. Iruñeko Gobernu Ordezkaritzako iruzurraren sumarioan ageri denez, Garcia Villosladak gobernu ordezkari izan zen urteetan Madrildik protokolorako gastuetarako iristen zen dirua desbideratu egiten zuen. Gero faktura faltsuak egiten zituzten gastuak justifikatze-ko.

ahaztu gabe!



TAILERRA

Iruñea: IPES elkarteak 'Gerrak eta bakea gaurko munduan' izenburupean, munduan dauden gatazkez eztabadaitzeko tailerrak antolatu ditu Iruñean. Astelehenean, urtarrilak 22, hasiko dira eta lau egun iraungo dute.

Astelehenean, egun gerrak zertan diren erantzuten saiatuko da Anna Bastida Bartzelonako Irakasletza Unibertsitateko irakaslea. Asteartean, berriz, Madrilgo Utopia contagiosa elkarteak Armadaren eginkizunaz eta desobediencia zibilaz mintzatuko da besteak beste. Azteazkean, Xavier Giro Bartzelonan Kazetaritza Berezituko irakaslearen txanda izanen da. Girok informazioa, manipulazioa eta gerrak izanen ditu mintzagai. Tailerrak ostegunean akituko dira.

Tailerrak IPES elkarteak San Miguel kalean duen egoitzan egingen dira. Matrikula, langabe-tuentzat 3.000 pezetakoa izanen da eta besteentzat 5.000koa. Astelehenean eta asteartean 19.00etatik 22.00etara izanen dira eta beste bi egunetan, 17.00etatik 19.00etara. Informazio gehiago nahi duenak 22 59 91 telefonora dei dezake.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, Zokobetaitu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gaitetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Lakuntza

San Sebastian ospatzeko ekitaldi ugari

Donostian ezezik, Lakuntzan eta Tafallan ere jaia da San Sebastian eguna

Nafarroan ere badira San Sebastian eguna ospatzen duten herriak, Tafalla eta Lakuntza, hain zuzen ere. Aste osoan zehar ospatu dituzte Sansebastianak Tafallan baina asteburuan izanen dira ekitaldi nagusiak. Lakuntzan, berriz, gaur hasi eta astelehenera arte iraungo dute ospakizunek.

Erredakzioa / Iruñea

DONOSTIAN ezezik, Nafarroako hainbat herritan ere ospatzen dute San Sebastian eguna, Tafalla eta Lakuntzan, hain zuzen ere. Hori dela eta, aste osoan zehar hainbat ekitaldi dituzte herrietan. Hala ere, Donostian edo Azpeitian bezala, larunbata, hilaren 20a, San Sebastian eguna, alegia, izanen da Tafallan eta Lakuntzan ere egun nagusia.

Lakuntzari dagokionez, aurten ere ekitaldi ugari antolatu dute San Sebastian eguna ospatzeko. Gaur eguerdian suzuria botako dute, eta ordu bietan, berriz, danborrada izanen da. Gau partean dantzaldia egonen da Joselu Anaian eskutik.

Bihar goizean goiz hasiko dira ospakizunak, aurarekin. Hamaitetan, aldiz, erromeria eginen dute herritarrek ermitaraino, trikitilarien laguntzarekin. Hamabietan meza nagusia egingo dute, eta ondoren txistorra eta piperopilak jateko aukera izanen dute denek. Arratsalde partean antzerkirako parada izanen da, Iluna taldearen eskutik; eta



Gaur gauean dantzaldia izango da Lakuntzan, Joselu Analekin.

OLALDE

gauean, berriz, dantzaldia izango da Elurte orkestraren eskutik.

Igandean, meza nagusia egingo dute goizean, eta arratsaldean kirolari egin diote tartea egitarauan. Behar Zana pilotalekuan pilota partiduak izanen dira. Gazteen artean Mundiñano-Mendiluze eta Sueskun-Oraa ariko dira buruz buru; eta afizionatuen artean, berriz, Barberito-Lasa eta Ansola-Esnaola. Gauean Cílon orkestrak alaituko du giroa. Astelehenean amaituko dira ospakizunak. Gazta eta ardo banaketa eginen dute goizean, eta arratsaldean Jator tal-

deak jarriko du musika.

Tafallari dagokionez, musika izan da nagusi aste osoan zehar eta Tafallako Abesbatzak eta Arantza Irañeta eta Pedro Armentariz abeslariak hartu dute parte, besteak beste. Baina bada oraindik zer egin eta zer ospatu Tafallan. Gau arratsaldean, adibidez, seiak aldera, *Sra. Doubtfire* filmea botako dute herriko haurrentzat Kultur Etxean. Gau partean, berriz, ordu bata eta erdietatik laurak eta erdiak bitartean Xaneiro orkestraren eskutik jaialdia izanen da Guesera aretoan.

San Sebastian egunean, goizaldeko seietatik aurrera aurora eginen dute San Sebastianen omenez. Ondoren, goizeko haizak eta erdietan, meza nagusia izango dute. Udaltzak hartuko du parte, eta udaletxetik bertatik abiatuko dira elizara musika banda eta buruhandi eta erraldoekin batera. Arratsalde partean, bostak aldera, pilota partiduak jokatu dituzte Erela pilotalekuan; eta Gueseran, berriz, haurrentzako dantzaldia eginen dute. Zortzietan, azkenik, zezensuzkoa ibiliko da kaleetan zehar. X

Donibane-Garazi

Gau beila Ruper Ordorikarekin

■ Garazikus zinema elkarteak, AEK-k, Bortuaren Egunak eta Garaziko ikastolak antolatu dute

Lutxi Fourcade / Donibane-Garazi

JOAN DEN urtean, Korrika prestatzen ari zenean Garazi aldean, AEK taldeak gau beila antolatu zuen euskaldun berri eta zaharrek biltzeko. Pesta egiteko parada ona izan zen eta ikasle gehienek gustukoa. Garazikus zinema elkarteak, AEK, Bortuaren Eguna eta Garaziko ikastolak indarrak bateratu dituzte beste gau beila antolatzeko aurten eta datorren larunbat aratsean iraganen da Garat trinketearen gaineko gelan 21tarik lekorat gonbite ospetsuaren inguruan: Ruper Ordorika eta bere taldea.


«Jendeke maite dute gau beilak antolatzen direnean, zuzenean parte hartzen ahal baitute» adierazi zuen Antton Luku AEKko ordezkariak, azpimarratuz gaualdiaren antolatzeko nahikeria ikasletik etorri zela. «Horrelako ekitaldietan pentsatzen ahal

dira aintz paper ttipi eta norberak egiten ahal du gauza bat bere nahi edo ahalaren arabera» gehitu zuen. Joan den urtean, ikasle guztiek atxiki zuten beren egiazko errola eta kanpoko lagun batzuk lekukoak ekarri zituzten, hala nola Itxaro Borda euskalkia edo euskara modernoaz, Napatheideko marrazkilariak gela apaintzeko eta komentatzeko.

«Iaz ikasleek plazer aintz hartu zuten hortan eta matrikulatzean aurten batzuk izena eman zuten bakarrik baldintza horretan, hots gau beila behar ginuela muntatu» azaldu zuenez. Gai bat miatu zuten eta poesiaren inguruan zerbaiten antolatzeko erabaki zuten. Ruper Ordorikarekin harremanetan sartu ziren eta gau beilan parte hartzeko proposamena onartu zuen berehala, ekitaldian parte hartzeaz gain parada ederra baitzen bere azken diskoa presentatzeko Baxe Na-

barran. Aurkezpen ofiziala igandean aratsaldeko 3.30tan iraganen da Garaziko zinegelan eta kontzertu kantaldia eskainiko du Mugalariak bere musikariak lagundurik. Gutxi jo du Iparraldean azken urte hauetan «erabili gaiak aski arrotzak zitzaizkigulakotz behar bada» Lukuk zioenez eta azken diskari dagokionez, lehen aldikotz abestuko du Garazin.

Alabaina ez ohizko lana bete beharko du Ordorikak bezperan, lau elkarte antolatutako gaualdiaren. Bere diska zaharrak ikertu dituzte AEKko ikasleek eta hortik ateratu dute hari bat, bere poesiaren garapena adierazteko Pottetik abiatuz So'ik so diskari. «Hari hori erabili dugu antzerkiñoak egiteko eta asmatu dugun jokoan, Ruperrek bere kantu zaharra ezagutu beharko du baita ere kantatu» azaldu zuen Lukuk. Sartze urrik izanen da eta Irene Borda eta Jean-Bert



Ruper Ordorika.

OLALDE

Iribarnek, tokiko marrazkilariak gela apainduko dute. Napatheideko kidei ere gonbita luzatu diete eta Asisko, Marko edo Martinen gain utzi dituzte zuzeneko komentarioak. X

Sakana

Aisiarako begiraleen ikastaroa

■ Urtxintxa
Atsedendiko
Hezitzaile Eskolak
antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

URTXINTXA Atsedendiko Hezitzaileen Eskolak antolatuta, aisiarako begiraleen ikastaroan parte hartzeko aukera eskaintzen du Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Nafarroako beste hainbat udal-tako euskara zerbitzuekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera.

Edukiaren aldetik, talde dinamikak, garapen psikologikoa, animazio teknikak, aisiarako pedagogia, gorputz adierazpena, programazioa, esparru espezifikoak —kanpaldiak, ludotekak, gaztetxeak, natur eskolak kasu— eta ingurugiroko hezkuntza landuko dira, besteak beste. Ikastaroa otsailean hasiko da eta maiatzean bukatu.

Sakanan bezala, gainera, Antsoain, Uharte, Barañain, Auritz, Zizur Nagusia, Atrrabia, Baztan eta Burlatan ere eginen dute aisiarako begiraleen ikastaroa. Urtxintxak antolatutako ikastaroan parte hartu nahi duenak bere udaleko euskara zerbitzuan eman behar du izena. X

Mendillorri

Menditipi euskaltegiaren urteurrena

■ Ekitaldi ugari
antolatu dituzte

Erredakzioa / Iruñea

MENDILLORRIKO IKAKO Menditipi euskaltegiak lehen urteurrena bete berri du, eta ospatzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen asteetarako. Kultur ekitaldiak hiru ataletan banatu dituzte. Lehenik eta behin, euskaltegiak argazkigintza, euskal kantak, zeramika eta haurrendako ludoteka tailerrak prestatu ditu.

Bestetik, zinema zikloa antolatu du. Hil honen 25ean Juseppe Tornatoreren *Paradiso Zinema* botako dute, otsailaren 29an Gilo Pontercorvoren *Quetmada*, eta martxoaren 28an Terry Williamen *Munchausengo Baroiaren abenturak*.

Euskaltegiak antolatutako ekitaldien azken atala hitzaldiek osatuko dute. Datorren hilaren 15ean Nafarroako zenbait herritako lagunak Ihauteiak eta ohiturak izanen dituzte mintzagai. Martxoaren 14an, berriz, intsumisioaz ariko da Lander Aurrekoetxea. X

Nafarroako Liburutegiak
egoitza berria noiz?

Akordiorik gabe, liburutegia zain

Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren desadostasunak atzeratu egin du egoitza berriaren proiektua


Urteak dira Nafarroako Liburutegi Nagusiko liburuak apaletan zain direla, egoitza berria noiz izanen duten zain. Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko ezadostasunak atzeratu egin du liburutegiko arduradunentzat aspaldi premiazkoa den erabakia. Bitartean, San Frantzisko plazako liburutegian ez dago lekurik liburu bakar bat gehiagorentzat ere.

Eduñe Elizondo / Iruñea

IRUÑEKO Alde Zaharreko eraikinean artean beste bat da Nafarroako Liburutegi Nagusiarena. 1972. urtean eraiki zuten eta orduz geroztik, hamar mila liburu berri ailegatzen da bertara, batez beste, urtero. Urte hauetan guztietan, ordea, liburutegiaren espazioa ez da ia aldatu. Ondorioz, orain lau urte, «larrizat» jo zuten bertako arduradunek liburutegiaren egoera. Lorenzo Otazu Ripa zuzendaria argiagoa izan zen joan den azaroan egindako adierazpenetan: «Urtarrilaz geroztik ez da liburu bakar bat gehiago sartuko liburutegian».

Oker dago Otazuren hitzak metaforatzen hartzen dituenak, azken urteetan liburutegiko apalategi, pasabide eta bulegoetan pilatu baitira liburuak. Egun, beraz, liburu gehiago sartu nahi izanez gero, beste batzuk atera egin beharko dituzte. Halaxe azaldu digute liburutegiko teknikariek. Jose Ortega Principe de Vianako Liburutegi eta Kultur Ekitaldien Zerbitzuko zuzendariak eman digu honen berri: «Iruñeko Udalak liburutegiko hainbat fondo gordetzeko leku bat utziko digun zain gaude». Ziurrenik, Ansoleaga kaleko Administrazioaren Artxibo zaharreko eraikinean gordeko dituzte liburuok. Halaber, mailegu zerbitzuan egun den egoera larria arintzeko asmoz, San Frantzisko plazan bertan dauden eskolen eraikinean jarriko dute martxan zerbitzu hau. Iruñeko Udalaren erabakiaren zain dago Principe de Viana erakundeak.

Iruñeko Udalak izan ere, zerkusi handia du, Nafarroako Gobernuak bezala, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren arazoan. Arazo hau, egia erran, ez da gaurkoa, zortzi urte igaro baitira dagoeneko Udalaren eta Gobernuaren artean akordiorik lortu gabe. Bitartean, liburutegiaren egoitza berriaren proiektua atzeratu eta gelditu egin da eta liburutegiko arduradunek azaldu duten legez, «jada beranduegi da. Egungo egoera arinduko duten konponbideak baino ezin dira martxan jarri orain».



Iruñeko liburutegi gehien arazoa da espazio falta.

ARTXIBOKOA

Jose Ortegak azaldu digunez, Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko negoziazioak du arazoa konponduko duen giltza, negoziazio horien bidez erabakiko baita egoitza berria non, nola eta noiz eginen den. Aukera bat baino gehiago dago mahai gainean. Iruñeko Udalak argi du liburutegiak Alde Zaharrean jarraitu behar duela eta hiru aukera proposatu ditu: alde batetik, Condestablearen jauregia izan daiteke liburutegiaren egoitza berria, Rozalejoko jauregia bestela edo San Frantzisko eskolen egoitza, azkenik. Hiruren artean, badirudi Condestablearen jauregia berritzea dela Iruñeko Udalak egokienetzat jotzen duen aukera.

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik erabakirik hartu. Hala ere, Principe de Vianatik egin diren hainbat ikerketen arabera Condestablearen jauregiaren aukera bideragarria izan daiteke. Tomas Yerro Nafarroako Gobernuko Kultura zuzendaria, hala ere, hainbat traba ikusten dio aukera honi. Ondarearen Zerbitzuetatik jauregia berritzeko hartu beharreko hainbat neurri zalantzan jarri baitira. Ondarearen Zerbitzuko teknikariek erran dutenez, hain zuzen, eraikina berrituz gero, barruko pa-



Nafarroako Liburutegian ez da liburu gehiago sartzen.

ANDER GILLENEA

tioa eta artesonadua errespetatu egin beharko dira.

Liburutegiko arduradunak eraikin berriaren alde • Ondarearen Zerbitzuaren aholkuek gain, Espainiako Kultura Ministerioaren eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (Unesco) ere jaso ditu Nafarroako Gobernuak Jose Ortegak argitu digunez, eta aholku hauen arabera, liburutegiarentzat egoitza berria eraikitzea da aukerarik egokiena, beste eraikin bat berritu baino. Lorenzo Otazuk zuzentzen duen Nafarroako Liburutegi Nagusiko arduradunak ere iritzi berekoak dira, «hori baita egungo egoitzan ditugun fondoak gorde eta liburutegiak eskaini beharko lituzkeen zerbitzu guztiak martxan jartzeko modu bakarra».

Liburutegiko arduradunek, beraz, baztertu egin dituzte Iruñeko Udalak egindako proposamenak, inolako zalantzarik gabe. Rozalejoko jauregiari dagokionez, leku gutxi dagoela uste dute liburutegiko teknikariek. Condestablearen jauregiaren aukera ere baztertu egin dute. Eraikin honi dagokionez, Nafarroako Gobernuak ikerketa eskatu zion herrialdeko arkitekto talde bati. Ikerketa honetan jasotako da-

Nafarroako Liburutegiak egoitza berria noiz?

**Asun Maestro: «Ditugun
baliabideak ahalik eta
hoberen erabiltzeko
funtsezkoa da elkarlana»**

tuen arabera, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren proiektu berriak beharko lituzkeen 12.000 metro karratuak lortzeko, ekinaldi oldartsua egin beharko litzateke eraikinean. Egin beharreko egokitzapen eta berritze hauek guztiak direla eta, halaber, liburutegiarentzat eraikin berria egitea merkeagoa izan daitekeela uste dute bertako arduradunek. San Frantziskoko eskolei dagokienez, azkenik, 87 ikasle dago egun bertan. Liburutegia hara eramatekotan, beraz, ikasleontzat beste lekua bilatu beharko litzateke. Iruñeko Udalak proposatu duenez, Joaquín Maya Musika Eskola izan daiteke aukerarik egokiena, arratsaldeko seietatik aurrera hasten baitira bertan klaseak. San Frantzisko eskoletan egiten diren funtzionarietako ikastaroei dagokienez, Jose Vila izan daiteke klase hauek bere gain har ditzakeen ikastetxea.

Otazuk, halaber, liburutegia egin daitekeen hainbat leku ere proposatu ditu, besteak beste, Yamaguchi parkean —Planeta-riaren ondoan— edo autobus geltoki ondoan dagoen eta Intendentziako deritzon orubean. Iruñeko Udalak, ordea, eraikin berri bat egitea proposatzen duen aukera hau baztertu egin du, liburutegia alde zaharrean gelditzea nahi baitu. Honela, zonalde hori berreskuratu nahi du Iruñeko Udalak. Udaletxean Herri Batasunako taldeak baino ez du eraikin berriaren proiektua defendatzen.

12.000 metro karratuko

proiektua • Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko negoziazioak oraindik fruiturik eman ez badu ere, Nafarroako Liburutegi Nagusiko teknikariek jada zentru berriaren diseinu teorikoa egin dute, liburutegiak eskaini beharko lituzkeen zerbitzu ezberdinak jasoz. Osotara, 12.000 metro karratuko eraikina beharko luke liburutegiaren egoitza berriak egindako diseinuaren arabera.

Liburutegiko teknikariek aurrerikusi dituzten zerbitzuei dagokienez, honakoak dira aipagarri: Informazio zerbitzua, liburutegi espezializatuak, hemeroteka, Lege Gordailu eta Ondasun Intelektualaren Erregistroa, Bibliografiaren Nafar Institutua, Nafarroako Filmoteka, fonoteka, Liburuen Mailegu Zerbitzua, gutxienez milioi bat libururen-tzako gordailuak, Liburutegien Sarearen Koordinazio Zentrua, zerbitzu laguntzaileak, ekitaldi 3aretoa, erakusketa aretoa, jolasaldirako zonaldea eta etorkizunean eraikina handitu ahal izateko adina leku (% 30 gutxienez, ikerketa guztien arabera). Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren akordioa baino ez da falta liburutegi berriaren proiektuari ekin ahal izateko. Bada garaia. X



Udalaren eta Gobernuaren artean akordiori ez izateak atzeratu du liburutegiaren proiektua.

JOXE LACALLE

Nafarroako Liburuzainen Elkartea osatu dute

HERRIALDE osoko liburuzainak biltzen dituen Nafarroako Liburuzainen Elkartea sortu zuten joan den uztailan. Egun hauetan jendaurrean aurkeztu du bere burua aipatu elkarteak eta etorkizunerako dituen proiektu eta asmoen berri eman du. Elkartean 65 liburuzainetik goiti dago egun, liburutegi publikoetakoak, unibertsitateko liburutegietakoak, Nafarroako Administrazioari hainbat sailletakoak, osasun zentroetakoak, ikastetxe profesionaletakoak, eta abar.

Asun Maestrok Nafarroako Li-

burutegi Publikoen Sarean egiten du lan eta Nafarroako Liburuzainen Elkarteko kide da. Beraz sortzeko asmoaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Beste ezer baino lehenago, Nafarroako Liburuzainen Elkartean ibilbidea hasi besterik ez bada ere, kide guztiak «ilusio osoz» ekin diotela lanari ziurtatu digu. Elkartean asmoen nondik norakoak azaldu dizkigu ere. Bere helburuen artean, formakuntza aipatu digu Asun Maestrok lehenik eta behin, eta, gai honi dagokionez, beste liburutegiak

ezagutzeko bidaia egitea da urte honetan zehar egin nahi duten ekintzetako bat. Maestrok, besteak beste, Donostiako Koldo Mitxelena aipatu du, «hori baita liburutegi modernoaren adierazle garbia». Nafarroako Liburutegi Nagusi berria izango denak bertatik gauza asko ikas dezakeela uste du berak.

Formakuntzari lotuta, martxoan Nafarroako liburutegiei buruzko jardunaldiak egiteko asmoa ere badu Nafarroako Liburuzainen Elkartea, nahiz eta asmo hau oraindik zehazteke

dagoen. Bertan liburuzainak, teknikariak eta politikoak bildu nahi dituzte elkartekideek, liburutegiaren arazoei buruzko gogoeta egin eta konponbideak bilatzeko asmoz.

Jardunaldi hauen bidez eta, oro har, eguneroko lanaren bidez, liburutegiaren gainera legea sortzea ahalbidetu nahi du Liburuzainen Elkartea. Izan ere, kultura autonomia bakoitzeko ardura izanik, batzuetan lege hori sortu dute baina Nafarroan ez. Asun Maestrok lege horren beharra azpimarratu du, «behintzat erreferentzi puntu bat izan dezagun».

Formakuntzarekin batera irakurketa ere bultzatu nahi du Nafarroako Liburuzainen Elkartea. Asun Maestoren ustez, hala ere, «Nafarroan dagoena kontuan hartuz, asko irakurtzen da. Nire ustez, asko irakurtzen den edo ez galdetu beharrean, gehiago irakurtzeko aukerarik dagoen da egin beharreko galdera. Iruñean, adibidez, edozein liburutegira joan eta jendez gainezka dago. Eta egia erran, ezin da beste zerbitzurik eman, ez baitago lekurik, ezta langilerik ere».

«Nafarroako liburutegiaren sistemaren birdefinizioan laguntzea» ere bada Liburuzainen Elkartea bere gai zerrendan idatzi duen beste bat. Asun Maestrok eman digu honen berri: «Gaur egun dauden liburutegi ezberdinak ezin daitezke konparatu, hau da, ezin dugu Liburutegi Publikoen Sarea unibertsitateetako liburutegiarekin alderatu». Elkarteko kideak egun ez dagoen elkarlana aldarrikatzen du eta horretarako liburutegiaren legea funtsezkoa izan daitekeela uste du. «Horrek guztiak, adibidez, Tafallako herritar batek bertako liburutegian unibertsitateko liburu bat eskuratu ahal izatea ahalbidetuko zukeen, prozesu osoaren kudeaketa barnetik bertatik eginez».

Gaur egun 85 liburutegi publiko daude Nafarroan. Asun Maestrok azaldu duenez, ordea, «hiruko gobernuak eta baita aurrekoak izan duten liburutegi politikaren bidez, liburutegi horietako batzuen ardura bakarrik hartu du Gobernuak bere gain, hau da, batzuk Gobernuaren esku gelditu dira eta beste batzuk udalen esku». Liburuzainen Elkarteko kideak, berriro ere, liburutegi guztien arteko artikulazio komuna aldarrikatu du, batez ere, «dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko asmoz».

Baliabide hauek, hain zuzen, «murriztak» dira Asun Maestoren ustez, «irakurketa ez baita batera ikusgarria kulturaren beste alorrekin alderatuz gero. Beraz, kulturak beti diru gutxi jasotzen badu, gu gara zati horretatik ere gutxien jasotzen dugunak». Hori dela eta, baliabide horiek egokiago banatzeko eskatzen du Asun Maestrok. Arazoa, bere ustez, liburutegiaren lana egunerokoa eta mantsoa dela da, «beraz, legegintzaldi bakoitzak irauten duen lau urteetan emaitzak lortzea oso zaila da, gutxienez zortzi urte behar dira fruiturik ikusteko». X

Dei berdeak

Ekologia eta kontsumo naturalari buruz informazio osatua eskaintzen du Telefono Berdea zerbitzuak

Nafarroan beste euskal lurraldeetan baino sentsibilitate handiagoa dago ingurugiroari dagokionez, gairen inguruan Hego Euskal Herriko duda eta kontsultak argitzeko duela hiru urte sortu zen Telefono Berdearen arduradunaren arabera. Gure lurraldetik egin ziren deiak, esate baterako, Bizkaitik heldu zirenak baino gehiago izan ziren nabarmen.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ASTIGARRAGAN (Gipuzkoan) dagoen zerbitzu honek laz jaso zituen deien artean, ekologia eta kontsumo naturalari buruzko galderak izan ziren nagusi. Nafarroan izan ziren gehien deitu zutenak, gipuzkoarren atzetik, eta horrek, Begoña Marques enpresa pribatu honen arduradunak dioenez, garbi uzten du gure lurraldean dagoen sentsibilitatea ingurugiroari dagokionez.

Ikastaroak, hezkuntza, salaketak, nekazaritza ekologikoa, garbitzeko produktuak, kirola, birziklatzea... zerrenda amaigabea da, deiak baitira Telefono Berdearen eskaintza zedatzen dutenak. Ingurugiroa, ekologia, kontsumoa, osasunari eta horien inguruko gaiet buruz dauden duda eta kontsulta guztiak argitzeko sortua, duela hiru urte jarri zen Euskal Herriko telefono hau, eta denbora honetan gora egin du etengabe dei kopuruak.

Zerbitzuak ez du konplexutasun handirik. Informazio guztiak berehala ematen dira, datu baseari esker, eta dohainik da. Datuak ez dira gutxi: hamar milatik gora helbide daukate bertan, Europako zein Euskal Herriko legedi guztia eguneratuta, informazio orokorreko datu anitz, eta enpresen eta partikularren arteko bitartekaritza erosi edo saldu nahi den produktuari buruz. Horren inguruan, aholkuak eman baino gehiago jendeari informazioa ematen ahalegintzen dira zerbitzu honetan, gero norberak aukera dezan.

Zerbitzu honek ez du dirulaguntzarik, eta diru sarrera bakarra da euren datu basean agertu nahi duten enpresek eta partikularrek ordaintzen duten kuota. Azken aldiaren udalengan sartzen ari da Telefono Berdea, Begoña Marques bazkideak azaldu duenez. «Gipuzkoan batez ere, badira ingurugiro zerbitzurik ez duten udal asko, eta askotan ez dakite nora jo bizilagunek gai hauetaz galdetzen dietenean. Beraz, guk Udalarai gure zerbitzuak eskaintzen dizkiogu, gero herritarrek dei dezaten». Oraingoz ez da Nafarroako udalik zerrenda honetan, besteak beste, marketin arazoengatik. «Ez litzateke oso logikoa izango Nafarroako udalek euren herritarrei Gipuzkoako telefono bat emango baliete, eta horregatik beste bide batzuk aztertzen ari gara». Udalek kuota desberdinak ordaintzen dituzte biztanle kopuruaren arabera: 5.000 biztanletik beherakoek ehun mila pezeta ordaintzen dute (lau mila libera), eta 250.000tik 500.000ra bitarteko biztanleria dutenek 500.000 pezeta (20.000 libera).

Datu basean eta informazio orokorrean ezezik, eguneroko lanean oinarritzen da zerbitzua. Horretarako, egiten diren azoketara joan, eguneroko informazioari erreparatu, eta antzeko jarduerak egin behar izaten dituzte bertan dauden bi biologoek. Pixkanaka egiteko lana, bistan denez. «Enpresek eta zerbitzuak ondo ezagutzeko prozesua mantso joaten da, eta harreman zuzena da onena, baina horrek lan handia eskatzen du, eta bakarrik bi gaude». Hiru urte hauetan ez dute oraindik telefonoari esker mantentzea lortu, nahiz eta, esan bezala, deien kopuruak gora egiten duen etengabe.

Telefonoa 33 05 00 da, eta 9.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara dago martxan. Momentuan jaso daitekeen informazioaz gain, fotokopiak eta gai zehatz bati buruz dokumentazioa ere eskaintzen dute. Azpimarratu behar da ere bai, Euskal Herriatik ezezik, Espainiatik ere dei franko jasotzen dituztela. Izan ere, Madrilan sortu zen lehendabizi zerbitzua, eta gero Euskal Herriara ekarri zuten. Ondoren, Espainiako hiriburuan zegoen taldea desagertu egin zen, eta oraindik dei asko handik datoz zuzenean, Astigarragan dagoen zentrorra. Nahiz eta informazio falta ez izan, datuak franko osatuagoak daukate Euskal Herriari buruz.

Erakundeei buruz informazioa


ERAKUNDE eta enpresei buruzko informazioa, kontsumo naturalerako jakingarriak diren datuak eta osasunarekin zerikusia dutenak dira Telefono Berdea zerbitzura deitzen dutenen kezka nagusiak. Hezkuntza, jantziak, birziklaia eta telebistari buruzko informazioa dira ondoren, eta turismo berdea, komunikabideak eta zainketak —yoga, erlaxazioa...— osatzen dute jakinmina pizten duten gaiak.

Gipuzkoatik hots egiten dute gehien, baina Nafarroa da hurrengo lurraldea, Bizkaia eta Arabaren aurretik. Begoña Marques zerbitzuko arduradunak azaldu duenez, dei hauen barruan aldaketa esanguratsuak izan dira telefonoa martxan dagoenetik, eta, iazkoekin alderatuta, esaterako, badira azpimarratzekoak diren aldaketak. Iaz, esate baterako, kontsumo naturalari buruz —papertegia, etxerako produktuak, pinturak, ekodendak...— kontsultek igoera handia izan zuten aurreko urtearekin alderatuta, eta baita osasuna eta medikuntza alternatiboari buruzkoek ere.

Landa turismoak eta komunikabideek —argitaletxeak, aldizkari espezializatuak, liburuak...— ere gero eta interes handiagoa pizten dute deitzen duen jendearen artean. Jaitsi egin dira, ordea, enpresek edo profesionalak ematen dituzten zerbitzuei buruz galdezka datortzenak eta baita birziklaiaz ari direnenak ere.

Hezkuntza gaiak ere galdera pizgarriak dira arrunt, eta batez ere osasuna eta medikuntza alternatiboak. Galderak ere asko izan dira ikastaroet buruzkoak.

Horien guztien artean % 14,2 Nafarroatik iristen dira. Begoña Marquesen ustez, horrek garbi erakusten du lurraldean dagoen sentsibilizazioa gai honekin, «Hegoaldeko beste hiru lurraldeetan baino handiagoa baita. Gainera, legedia askoz ere garatuagoa dago Nafarroan, ekitaldiak ugariagoak dira, eta mugimendu handiagoa dago, oro har». Adibide gisa, nekazaritza ekologikoak Nafarroan izan duen hazkundeaz azpimarratu du Marquesek eta Eonavarra bezalako feriek duten harrera. X



◆ Ana Mari Marin ◆ Elizondoko alkate-jurado eta margolaria

«Ilusioa berpiztu nahi dut»

Ana Mari Marin margolari baztandarra Elizondoko alkate-jurado da hil honen 6az geroztik. Jon Frantsesenak joan den uztailean karguari uko egin zionetik, inork ez du hark utzitako hutsunea bete nahi izan. Egoera horrek bultzatuta, hain zuzen, hartu du Ana Mari Marinek aurkezteko erabakia. Herritarren ilusioa berpiztea du helburu margolariak.

Edurne Elizondo / Iruñea

URTE baten buruan Elizondoko herritarren jarrera aldatu nahi du Ana Mari Marinek. Herria zerbitzatzeko gogoa galdu omen du jendeak. Ez berak, ordea, gogo horrek eraman baitu berriro Elizondoko alkate-jurado izatera. Hasteko, ohitura zaharrak berreskuratzeko asmoa plazaratu du.

■ 1974-1976 bitartean izan zinen lehen aldiz Elizondoko alkate-jurado. Zerk eraginda hartu duzu berriro aurkezteko erabakia?

Jon Frantsesenak dimititu zuenean inork ez zuen bere lekua bete nahi, herritarrek atxikimendu gutxi baitaukate kargu honekiko. Horrek bultzatu nau neure burua aurkeztera. Izan ere, hau ez da beste alkateena bezalako kargua, kargu bakarrean bi figurak egiten baitute topo. Alde batetik juradoa dago eta bestetik alkatea. Hau da, nik Elizondo ordezkatzen dut Bailarako Batzorde Nagusian eta, bestetik, Baztango alkatearen ordezkarria naiz Elizondon.

■ Zure ustez, zein da herritarren axolagabekeriaren arrazoa?

Ez dagoela herria zerbitzatzeko gogoa. Karguak betetzeko gogoa politikoa da. Ni, hain zuzen, Jorge Oteizaren deiek bultzatu naute erabaki hartzerantz. Herriaren alde lan behar dugula aldarrikatzen du berak eta nik ere ideia hori hartu du oinarri. Izan ere, norbait eskuzabala dela ikusten duzunean ezin zaitezke atzean gelditu, ezin zara hain



Ana Mari Marin da Elizondoko alkate-jurado berria.

ARTXIBOKOA

gaiztoa izan. Bestela, herritar guztiek berdin egiten badute, herririk ere ez da geldituko azkenean.

■ Zu izan zinen 1966an Baztango zinegotzia zen lehendabiziko emakumea, baita alkate-jurado izan den lehenengoa ere. Emakumeak zerbait berririk eskaintzen al dio karguari?

Bai, noski. Emakumeak ikuspuntu ezberdina du hainbat gairi buruz, xamurragoa da eta beste osagarri diren interesak ditu. Gizonezkoarenak ere emakumezkoarenak osagarri diren bezala. Emakumeak eta gizonezkoak berdina direla erraten dutenean, intelektualki bai, izan daitezke, baina ezberdinak dira,

gauza askotan. Emakumeak gizonezkoek baztertzen dituzten gauza asko hartzen dituzte kontuan, arreta merezi duten gauzak. Estetikoki emakumea gizona baino xamurragoa da eta gure herriaren, hau da, Euskal Herriaren itxura zaindu behar dugu. Lapurreta egitea bekatu bada, naturaren aurka jotzeak ere bekatu izan behar du. Emakumeak, edonola, gero eta leku gehiagotan daude, baina oraindik borroka luzea daukagu aurrean, gizonen dena nahi baitute beraientzat.

■ Zure kargu berriak eraginik izanen al du zure margolari lanean?

Noski, edozein eginbeharrek, ongi egin nahi baduzu behintzat, denbora kentzen dizu, baita buruan, pentsamenduan ere. Hala ere, urte bateko hartu dut nik nire gain kargu hau, Elizondoko herritarren, gazteen ilusioa berpiztu nahi baitut, euren gogoa, herria

zerbitzatzeko gogoa esnatu. Hori da nire asmo eta helburu nagusia eta horregatik eta horretarako naiz Elizondoko alkate-jurado.

■ Ohiturak berreskuratu nahi dituzula ere aipatu izan duzu zure asmoen artean.

Bai. Ni tradizionalista naiz, hau da, nire ustez ohiturei eutsi egin behar zale, gure arbasoak gu baino askoz eskuzabalagoak baitziren, ez zegoen hainbeste gezurrik. Gaur egun, gure araudia bezalako ohitura zaharrak babesteko eta zaintzeko gogorik ez dago. Gure araudia, adibidez, 1500. urtekoa da eta bertan jasotzen zenez, gaitasun handiena zuen herritarra izanen zen alkate. Urte batean familia bat zen alkate, hurrengoan bestea. Araudiak aldatu eta hautagaiak ezarri zituzten. Baina inork ez du hautagai izan nahi. Eta nire ustez, zuhaitzak, espaloiak eta beste ez dira ez ezkerrekoak ezta eskuinekoak

s o s l a i a

Ana Mari Marin margolari baztandarra Elizondon jaio zen 1933. urteko abuztuaren 13an. 1966an, 33 urte zituela, Baztango Udaleko zinegotzi aukeratu zuten. Kargu hori bete zuen lehen emakumea izan zen margolaria eta urte hartakoak Baztango egin ziren lehen udal hauteskundeak. «Ordura arte, hautagaririk ez zegoenez, hauteskunderik gabe aukeratzeko zituzten karguak.»

Baztango zinegotzi izan ondoren, Elizondoko alkate-jurado izendatu zuten Ana Mari Marin 1974. urtean. Kargu horretan 1976. urtera arte egon zen. Margolaritzaren ondotik, hala ere, ez da inoiz baztertu eta bere koadroak Iruñea, Donostia, Mexiko, Londres, Bordele eta beste hainbat lekutan izan dira zintzilik.

Errege egunean bere gain hartu zuen berriz alkate-jurado kargua Ana Mari Marinek. Karguak denbora kenduko diola aitortu duen arren, hala ere, aste honetan bertan Baztandik meategietara izeneko erakusketa zabaldu du Portugaleteko areto batean.

ere eta botoa ematerakoan, naturaren legeari eman behar diogu lehentasuna. Urte honetan, beraz, halako ohitura zaharrekiko zaletasuna piztu nahi dut, herritarren ilusioa berpiztu bide horretatik jarrai dezaten.

■ Gazte jendearen ilusioa berpiztu nahi duzu, beraz?

Bai. Izan ere, zer egin ere ez dakite gazteek, ez baita inor gazteriaz arduratu, ezta euren gurasoak ere. Elizondon, adibidez, herritarren gainbehera sumatu da. Lehen kasino bat zegoen, bi zinematoki eta abar. Gaur egun, berriz, ezertxo ere ez. Gazteek, beraz, zer egin dezakete? Egoera honen ondorioz, gazteak ez dira biltzen, hau da, ez dago lehen zegoen herritarren arteko bilkura, hori guztia galdu egin da. x

«Elizondoko gazteek zer egin ere ez dakite, inor ez baita gazteriaz arduratu, ezta euren gurasoak ere»

LA P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

